

# EZAGUTZEN DITUZU ZURE ESKUBIDEAK?

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

Bertsio laburtua

UNICEFen, haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen dihardugu gure egiteko guztietan. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten dugu gure konpromiso hau ekintza praktikoetan gauzatzeko, gure ahaleginak bereziki haur kalteberengana eta baztertuenengana hurbiltzera bideratuz, haur guztien onurarako izan dadin, leku guztietan.

## Argazkiak

- Azala: © UNICEF/SUDA2014-XX585/Noorani
5. orrialdea: © UNICEF/UGDA201400150/Dyer
6. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2009-1755/Markisz
6. orrialdea (behean): © UNICEF/BANA2013-00429/Mawa
7. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2012-1416/Sokol
7. orrialdea (behean): © UNICEF/HIVA2014-00030/Schermbrucker
8. orrialdea (goian): © UNICEF/LaoPDR01842/Holmes
8. orrialdea (behean): © UNICEF/UGDA2012-00152/Nakibuuka
9. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2013-1517/Pirozzi
9. orrialdea (behean): © UNICEF/BANA2012-02019/Mawa
10. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2014-1111/Khuzaie
10. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2014-1929/Anmar
11. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2006-1880/Few
11. orrialdea (behean): © UNICEF/BANA2014-01300/Paul
12. orrialdea (goian): © UNICEF/INDA2011-00091/Crouch
12. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2011-0963/Ramoned
13. orrialdea (goian): © UNICEF/INDA2013-00232/
13. orrialdea (behean): © UNICEF/PFPG2014P-0868/Lynch
14. orrialdea (goian): © UNICEF/INDA2011-00024/Crouch
14. orrialdea (behean): © UNICEF/SLRA2013-0960/Asselin
15. orrialdea (goian): © UNICEF/SLRA2013-0044/Asselin
15. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2012-0092/Zaidi
16. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2012-2087/Friedman-Rudovsky
16. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2014-0230/Knowles-Coursin
17. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2013-1394/Noorani
17. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2012-2264/Markisz
18. orrialdea (goian): © UNICEF/UGDA201400332/Vassie
18. orrialdea (behean): © UNICEF/BANA2014-00965/Adnan
19. orrialdea (goian): © UNICEF/PFPG2014P-0780/Holt
19. orrialdea (behean): © UNICEF/PFPG2014-1104/Balasundaram
20. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2014-1267/Crespo
20. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ1993-0858/Daher
21. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2014-0628/Phelps
21. orrialdea (behean): © UNICEF/SUDA2014-XX774/
22. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2010-0795/Holt
22. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2011-2384/Pirozzi
23. orrialdea (goian): © UNICEF/ETHA\_2014\_00236/Ose
23. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ1992-0298/Perkell
24. orrialdea (goian): © UNICEF/NYHQ2009-1931/Pirozzi
24. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2004-0666/Brooks
25. orrialdea (goian): © UNICEF/AFGA2007-00426/Noorani
25. orrialdea (behean): © UNICEF/NYHQ2007-1865/Estey
26. orrialdea (goian): © UNICEF/SRLA2011-0387/Asselin
26. orrialdea (behean): © UNICEF/MLWB2010-685/Chagara
27. orrialdea: © UNICEF/NYHQ2010-1043/Markisz

# HAUR GUZTIEK DITUZTE ESKUBIDEAK EZAGUTZEN DITUZU?

>> **1989ko Nazio Batuen Hitzarmenak, Haurren Eskubideei buruzkoak, 18 urtetik beherako haur eta gazte guztien eskubideak jasotzen ditu.**

>> **Eskubide guztiek garrantzi berbera dute eta gure lana da mundu osoan bete daitezen lortzea.**

>> **Eskubide horiek gobernuek ziurtatu beharreko politiketan aditzera ematen dira, baita guztiok erakutsi beharreko jokabideetan ere, haur bakoitza duintasunez bizi eta garatu ahal izateko.**

## **Eskubide handi batek erantzukizun handi bat dakar berekin**

Eskubideei erantzukizunak lotzen zaizkie, hau da, Hitzarmenean jasotzen diren artikulua nahitaez bete behar dituzte gobernu guztiak eta pertsona guztiak. Munduko ia herrialde gehienek hartu dute eskubide horiek betetzeko konpromisoa, eta euren legeetan eta euren politika publikoetan adierazi dituzte. Haurren Eskubideen Batzorde bat dago, Estatuak konpromiso hori betetzen ari direla zaintzeko, eta euren betebeharra betetzen ari ez diren kasuak bertan salatu ahal izateko.

## **AZAROAK 20**

1959an Nazio Batuek hamar printzipio barne hartzen zituen Haurren Eskubideei buruzko Aldarrikapena onetsi zuten. Horrek aurrerapauso handia adierazi zuen, baina ez zen nahikoa haurren eskubideak babesteko, lege ez baitzuen derrigorrezko izaerarik. 1978an, Poloniako gobernuak haurren eskubideei buruzko hitzarmen baten behin-behineko bertsio bat aurkeztu zien Nazio Batuei. Munduko gobernu guztiakin, buruzagi erlijiosoekin, GKE-ekin eta beste erakunde batzurekin hamar urtez negoziazioetan aritu ondoren, **1989ko azaroaren 20an Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena** behin betiko testua onestea lortu zen; agiri hau betetzea derrigorrezkoa izango zen hura berresten zuten herrialdeentzat. 1990ean lege bihurtu zen, 20 herrialdek sinatu eta onartu ondoren (haien artean Espainia, non 1991ko urtarrilaren 5ean sartu zen indarrean). Gaur egun, munduko ia herrialde guztiak onartu dute Hitzarmena. Harrez geroztik, azaroaren 20a den bakoitzean, mundu osoan ospatzen da Haurren Munduko Eguna.

# ESKUBIDEAK, PRINTZIOZ

Haurren eskubideek funtsezko lau printzipio dituzte oinarri:

## 1. PRINTZIOA

### DISKRIMINAZIORIK EZA

Haur guztiek eskubide berberak dituzte: kasu orotan, une orotan eta salbuespenik gabe. Berdin dio haurraren azal-koloreak, bere erlijioak, bere jatorriak edo gurasoen ideiek.

## 2. PRINTZIOA

### HAURREN INTERES GORENA

Haurrari eragin diezaiokeen edozein erabakik, legek edo politikak kontuan hartu behar du haurrentzako onena lortu behar dela. Helduek erabakiak hartzen dituztenean, kontuan hartu behar dituzte erabaki horiek haurrengan izan ditzaketan ondorioak.

## 3. PRINTZIOA

### BIZITZEKO, BIZIRAUTENAKO ETA GARAPENERAKO ESKUBIDEA

Haur guztiek dute bizitzeko, garatzeko eta bizitzan bakoitzak duen gaitasun maximoa lortzeko eskubidea. Horrela, eskubidea dute elikadura eta ostatu egokia lortzeko, edateko ura, hezkuntza eta osasun-arreta jasotzeko, jolasteko eta atseden hartzeko, kultur jardueretan parte hartzeko eta beren eskubideei buruzko informazioa jasotzeko.

## 4. PRINTZIOA

### PARTE-HARTZEA

Adingabeek eskubidea dute beren bizitzan eragina eduki dezaketan egoerei buruz galdetuak izateko eta ematen dituzten iritziak aintzakotzat hartzeko. Horrek ez du esan nahi haurrek gurasoei aginduak emateko eskubidea dutenik, ez eta zer egin behar duten agintzeko eskubidea dutenik ere. Adinak gora egin ahala, parte-hartzea areagotu behar da eta horrela jokatzeko garrantzi handia du haurrak eta gazteak heldu izatera iritsi daitezen.



# NOR ARDURATZEN DA HITZARMENAZ?



**Nazio Batuen** helburua da munduko nazio guztiak elkartzea bakearen eta garapenaren alde lan egiteko, justiziaren, giza

duintasunaren, eta herri guztien ongizatearen printzipioetan oinarrituta. Nazio Batuen egoitza New Yorken (Estatu Batuetan) dago, baina lursaila eta eraikina nazioarteko lurraldetzat hartu dira. Nazio Batuek bandera, posta eta zigilu propioa dute, beste herrialde bat balitz bezala: guztion herrialdea, alegia. 6 hizkuntza ofizial erabiltzen dira: arabiera, txinera, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta errusiera. Batzar Nagusia da Nazio Batuen eztabaida-organo nagusia eta bere 191 estatu kideak daude ordezkaturak. Bertan onetsi zen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena.

**unicef**

Nazio Batuen agentzia bat denez gero, UNICEFek egiten duen lana haurrei bizi hasierarik onena ematera bideratuta dago; haur eta gazteek bizirauteko eta erabat garatzeko aukera izan dezaten laguntzera; eskolara joan daitezen lortzera; haiek babesten laguntzera, edozein indarkeria eta hondamendi edo larrialdi-egoeratan; azken finean, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena osatzen duten 54 artikulua betetzera. **Eginkizun honek ahalmen handiko aliatuak eta zu bezalako jendea behar ditu. Elkartzen al zara? [www.unicef.es](http://www.unicef.es) webgunean aurkituko duzu informazio gehiago.**

ZER DA MUTIL BAT?  
ETA NESKA BAT?

## 01. HAUR DEFINIZIOA

Hitzarmena 18 urtetik beherako adina duten pertsona guztiei aplikatzen zaie.



DENOK BERDINAK,  
DENOK DESBERDINAK!

## 02. DISKRIMINAZIORIK EZA

Haur guztiek dituzte eskubide guztiak Hitzarmenean jasota: berdin dio zure jatorriak, zure sexuak edo azal-koloreak, hitz egiten duzun hizkuntzak, zure familiaren egoera ekonomikoak, zure sinesmenak edo zuren gurasoenak, edo desgaitasunen bat baduzu.

### 03. HAURREN INTERES GORENA

Agintariak edo helduek zurekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituztenean, zure garapenerako eta ongizaterako onena dena egin behar dute.

*BETI ONENA!*



*MUNDU OSOAN  
BETE BEHAR DIRA!*

### 04. ESKUBIDEEN APLIKAZIOA

Gobernuek (eta eskualdeko eta tokiko agintariak) Hitzarmenean jasotako eskubide guztiak betearazi behar dituzte. Zure familiari lagundu behar diote zure eskubideak bermatzen, eta beste herrialde batzuekin lankidetzan aritu behar dute mundu osoan bete daitezzen.

*FAMILIAN HOBE!*

## 05. GURASOEN ORIENTABIDEA

Agintariek zure gurasoak eta zure hezkuntzaren ardura duten pertsona guztien erantzukizunak, eskubideak eta betebeharrak errespetatu behar dituzte. Zure familiak lagundu egin behar dizu zure eskubideak gauzatzeko.



*GORA BIZITZA!*

## 06. BIZIRAUPENA ETA GARAPENA

Haur guztiak dute bizitzeko eskubidea. Gobernuak ahal den guztia egin behar dute zure biziraupena eta garapena ziurtatzeko.



*NIKE IZENAK AXOLA DU!*

## 07. IZENA ETA NAZIONALITATEA

Jaiotzean erregistro batean inskribatua izateko eta izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea duzu, baita zure gurasoak ezagutzeko eta haien zaintza jasotzeko ere.



## 08. IDENTITATEA

Agintariek zure identitatea, izena, nazionalitatea eta famili harremanak errespetatu behar dituzte.

*NIKE IDENTITATEA,  
BABESTUTA!*



*BERDINTSU MAITE DITUT!*

## 09. GURASOENGANDIK BANATZEA

Ez da haurrik bere gurasoengandik banandu behar, bere hobe beharrez ez bada. Gurasoak bananduta badaude, haurrek eskubidea dute biekin trabarik gabe harremanetan egoteko.



*ELKARREKIN HOBE!*

## 10. FAMILIA ELKARTZEA

Edozein egoeraren ondorioz zu herrialde batean eta gurasoak beste batean bizi bazarete, zure gurasoak dauden herrialdean sartu eta haiekin elkartzeko eskubidea duzu, edo zure gurasoak zurekin elkartzekoa.

**BABESTUTA!**

## 11. LEKUALDATZEAK ETA LEGEZ KONTRAKO ATXIKITZEAK

Agintariak neurriak hartu behar dituzte beste herrialde batera legez kontra eraman ez zaitzaten edo herrialde hartan legez kontra atxiki ez zaitzaten.



**BADUT AHOTSA!**

## 12. HAURREN ETA GAZTEEN IRITZIA

Zure iritzia emateko eskubidea duzu, eta iritzi hori, zure adinaren eta heldutasunaren arabera kontuan hartzekoa, helduek zuregan ondorioak izango dituen erabakiak hartzen dituztenean.

*NIRE HITZAK  
BALIO DU!*

## 13. ADIERAZPEN ASKATASUNA

Askatasun osoz mintzatzeko eskubidea duzu, hau da, edonolako informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea, betiere beste norbaiten eskubideei kalte egiten ez badiete.



*NIRE SINESMENA DA!*

## 14. KONTZIENTZIA, ERLIJIO ETA PENTSAMENDU ASKATASUNA

Agintariek zure pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna errespetatu behar dituzte.

*LAGUNEKIN, HOBE!*

## 15. ELKARTZEKO ASKATASUNA

Askatasunez elkar zaitezke, elkarteak sor ditzakezu eta beste neska-mutilekin modu baketsuan bilerak egin, betiere jarduera horiek beste pertsona batzuen eskubideak urratzen ez badituzte.



## 16. INTIMITATEAREN BABESA

Bizitza pribatu propiorako eskubidea duzu, zure familiaren bizitza pribatua errespetatua izan eta zuen etxebizitzako intimitatea gordetzeko; eskubidea duzu inork zure korrespondentzia ireki ez dezan eta inork zure izen onari eraso egin ez diezaion.

*NIKE ESPAZIOA DUT!*

*JAKIN NAHI DUT!*

## 17. INFORMAZIO EGOKIA ESKURATZEKO AUKERA

Informazioa jasotzeko eskubidea duzu, batez ere zure ongizaterako eta garapenerako garrantzia duen informazioa, eta liburu eta egunkarien bitartez, nahiz irratiz, telebistaz eta internetez jaso dezakezu. Helduak informazio hori egokia izan dadin arduratuko dira, eta zuretzat kaltegarriak diren edukietatik babestuko zaituzte.



*NIKE FAMILIAK  
ZAINDU ETA MAITE NAU!*

## 18. FAMILIA ETA BERE ERANTZUKIZUNAK

Zure familiak du zure heziketaren eta garapenaren erantzukizuna, eta zure interesa aintzat hartuta jardun behar du. Agintariek zeregin horietan lagunduko diete, beharrezkoa denean.

**INDARKERIARI EZ!**

## 19. TRATU TXARREN AURKAKO BABESA

Agintariak tratu txarretatik, abusetatik eta indarkeriatik babestu beharko zaituzte, baita zure gurasoek edo legezko arduradunek eragindakoetatik ere.



**INOREZ DAGO  
BAKARRIK!**

## 20. FAMILIARIK GABEKO HAURREN BABESA

Babes eta laguntza berezietarako eskubidea duzu, gurasorik ez baduzu edo gurasoak zurekin ez badaude. Zure heziketa jarraitu ahal izatea, eta zure hizkuntza eta zure praktika kulturalak nahiz erlijiosoak mantendu ahal izatea kontuan hartuko dituzte laguntza horiek.

*BERME GUZTIEKIN!*

## 21. ADOPZIOA

Adopzioaren kasuan, haurren ongizatea izan behar da beti kontuan, beste ezeren gainerik.



*ETXETIK KANPO  
ERE, BABESPEAN!*

## 22. HAUR ERREFUXIATUAK

Haur eta gazte errefuxiatuek (gerra, hondamendi natural edo beste edozein egoera tarteko beren herrialdetik alde egitera behartu badituzte) babes berezia jasoko dute. Agintariak haur horiek zaindu eta babesten dituzten erakundeekin lankidetzan ariko dira.



**ESKUBIDE BERBERAK!**

## 23. MINUSBALIOTASUNEN BAT DUTEN HAURRAK

Minusbaliotasun fisiko edo mentalen bat baduzu, zure hezkuntza eta gaikuntza bermatzeko zaintza eta arreta berezia jasotzeko eskubidea duzu, bizimodu betea izan dezazun laguntzearren.



## 24. OSASUNA ETA OSASUN-ZERBITZUAK

Ahalik eta osasun-mailarik handiena izateko eskubidea duzu (edateko ura, higiena eta elikadura egokiak barne), baita gaixorik zaudenean arreta medikoa jasotzekoa ere. Gobernuak beste herrialdeetako gobernuekin lankidetzan jardun beharko dute eskubide hau mundu osoan gauza dadin.

**OSASUNA MUNDU  
OSOARENTZAT!**

*BABESA NEURRIKA!*

## 25. BARNERATZE BALDINTZAK

Zu babesteko edo gaixotasun fisiko edo mental bat sendatzeko establezimenduren batean barneratuta bazaude, zure egoera aldian behin berrikusi beharko da, barneratzea egokia dela eta behar baino gehiago luzatuko ez dela egiaztatzeko.



*OSASUNERA  
TRABARIK GABE!*

## 26. GIZARTE SEGURANTZA

Estatuek aintzat hartu behar dute gizarte-segurantzak ematen dituen laguntzen onura jasotzeko haur guztiak duten eskubidea, eta baliabide guztiak abiarazi behar dituzte eskubide hori gauzatzeko.

## 27. BIZI-MAILA

Zure garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako egokia den bizi-maila izateko eskubidea duzu. Zure gurasoek dute erantzukizuna, duintasunez bizi zaitezten, behar duzun guztia izan dezazun. Haiek eman ezin badizute, agintariek lagundu egin beharko diete.

**POBREZIATIK  
SALBU!**



**HEZKUNTZA BETI!**

## 28. HEZKUNTZA

Hezkuntzarako eskubidea duzu. Lehen hezkuntzak nahitaezkoa eta doakoa izan behar du, eta bigarren hezkuntzan jarduteko edo unibertsitatera joateko erraztasunak izan behar dituzu. Zure hezkuntzaren parte dira ere bai ikasketetan nahiz lanbideetan dituzun aukerei buruzko orientabidea eta informazioa. Herrialdeetako gobernuek lankidetzan aritu behar dute eskubide hau mundu osoan gauza dadin.

## 29. HEZKUNTZAREN HELBURUAK

Hezkuntzak zure nortasuna, gaitasunak eta ahalmen mental eta fisikoak ahal duzun guztia garatzera bideratuta egon beharko du. Besteekin, beste kultura batzuekin eta ingurumenarekin errespetuz jokatzeko eta arduratsua izateko, eta gizarte libre, tolerantia eta bakezale batean parte aktibo izateko prestatu behar zaitu.

*IKASIZ GERO BETI HOBETUZ!*



*IKARIBU! IPASAYKAMUY!  
ONGI ETORRI!*

## 30. GUTXIENGO ETNIKO EDO ERLIJIOSOAK

Gutxiengo etniko edo erlijioso batekoa bazara, zure kulturaren arabera bizitzeko, zure erlijioa praktikatzeko eta zure hizkuntzan hitz egiteko duzun eskubidea errespetatu behar zaizu.

*JOLASTUZ IKASI  
EGITEN DUT!*

## 31. AISIALDIA ETA KULTURA

Jolasteko, atsedeen hartzeko eta olgeta- eta kultura-jardueretarako eskubidea duzu.



## 32. HAURREN LANA

Zure osasunerako arriskutsuak diren edo eskolara joatea eragozten dizuten lanetatik babestuta egoteko eskubidea duzu. Ezin duzu lanik egin gutxieneko adina bete arte eta, lan egiten baduzu, baldintza egokiak bete beharko dira, ordutegiari eta lan-baldintzei dagokienez.

*EZ ARRISKURIK  
EZ ABUSURIK!*

33.

## LEGEZ KANPOKO DROGEN ERABILERA

Estatuaren erantzukizuna da legez kanpoko drogetatik eta droga-trafikatik zu babestea, eta beharrezko neurriak ezarri behar ditu legegintzan, administrazioan, gizartean eta hezkuntzan, helburu hori lortzeko.

*DROGARIK EZ!*



*ABUSU BAT  
GEHIAQO ERE EZ!*

## 34. SEXU-ESPLOTAZIOA

Agintariek sexu-esplotaziotik eta sexu-abusuetatik babestu behar zaituzte, prostituzioa eta ikuskizun edo material pornografikoetan parte hartzea barne.

*EZ GAUDE SALGAI!*

## 35. HAURREN SALMENTA ETA BAHIKETA

Gobernuek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte haurren salerosketa eta bahiketa eragozteko.



*EZIN NAU INORK  
ESPLOTATU!*

## 36. BESTELAKO ESPLOTAZIO MOTAK

Zure ongizaterako kaltegarriak diren bestelako esplotazio mota guztietatik babestuta egoteko eskubidea duzu.150

ZIGORRAK NEURRIAN!

## 37. TORTURA ETA KARTZELA

Ez haurrak ez nerabeak ezin zaituzte torturatu, edo krudelki tratatu edo zigortu. Delitu bat egin baduzu ez dizute heriotza-zigorrik ezarriko, ezta biziarteko kartzela-zigorrik ere. Epaitu eta erruduntzat hartzen bazaituzte, beste aukerarik ez badago baino ez zaituzte kartzelaratu eta, betiere, zure zigorra betetzeko gutxieneko denboraz. Ez zara inoiz helduen kartzela berean egongo eta zure familiarekin harremanetan egoteko eskubidea izango duzu.



EZ GARA  
SOLDADUAK!

## 38. GATAZKA ARMATUAK

Gerra-garaietan ezin izango zaituzte soldadu aritzeko errekrutatu eta ezin izango duzu borroketan parte hartu. Gatazka armatuetan haurrek babes bereziko eskubidea duzue.



AUKERA BERRI BAT!

## 39. SUSPERTU ETA BIRGIZARATERATZEA

Tratu txarrak, esplotazioa edo abandonua jasan badituzu, edo gerra batean egon bazara, fisikoki, moralki eta psikologikoki suspertzera bideratutako arreta jasotzeko eskubidea duzu.



## 40. JUSTIZIA ETA ADINGABEAK

Berme guztiez defendatzeko eskubidea duzu delitu bat egin izana leporatzen dizutenean. Epaila eta abokatuek kontu bereziz jardungo dute 18 urtetik beherako pertsonak epaitzen dituztenean, eta legeek gutxieneko adin jakin bat ezarri behar dute adin horretara iristen ez direnak helduak balira bezala epai ez ditzaten.

BIDEZKOA DA!

# 41. LEGERIK ONURAGARRIENA

Zuri dagokizun kasuren batean Hitzarmenaz kanpo beste lege batzuk aplika badaitezke, zuretzat onuragarriena den legea aplikatuko da.

*HOBEA BADA, HOBE!*



*ZABALDU AHOTSA!*

# 42. HITZARMENAREN HEDAPENA

Hitzarmen honetan bildutako eskubideen berri izateko eskubidea duzu. Gobernuak hauren, gazteen eta helduen artean hedatzeko betebeharra dute.

# 43-54. 43TIK 54RA BITARTEKO ARTIKULUA

43.etik 54.era bitarteko artikuluetan, gobernuak eta nazioarteko erakundeak —UNICEFek esaterako— aurreko eskubideak bete daitezten lankidetzan nola jardun behar duten azaltzen da.

POSIBLE BIHURTU  
DEZAGUN!



HITZARMENA  
HAZTEN ETA  
EGUNERATZEN  
ARI DA!

## AUKERAKO PROTOKOLOAK

Protokoloak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren osagarri dira eta sakonagotik aztertu beharreko zenbait gai eguneratzen dituzte.

>> Gatazka armatuetan hurrek parte hartzeari buruzko aukerako Protokoloa (2000)

>> Haurren salmentari, haurren prostituzioari eta pornografian haurren erabilerari buruzko aukerako Protokoloa (2000)

>> Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren aukerako Protokoloa, komunikazioen prozedura bati buruzkoa (2012)

